EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2026) III. ETA IV MODALITATEA

Onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Gobernu Kontseiluaren onespenarekin, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) honako deialdi hau argitaratu zuen:

EHUn IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2026).

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskaeren behin behineko zerrenda argitaratu zen IAEren webgunean. Eskaeren aurkezpen fasean erregistratutako merezimenduak berrikusirik, III. eta IV. Modalitateetan onartutako merezimenduen behin behineko zerrenda ere argitaratu zen, zerrendan bertan zehaztuz zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, IAEk errektoreordetzaren webgunean onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzea ERABAKI DU.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtso hori jarriz gero, eta errekurtsoa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsoa ezetsitzat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsoa ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikuluak; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikuluak).

Leioa, 2026ko azaroaren 2an.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETA ERREKTOREORDETZA